

## **POLITIKA FEMINISTAK: Zinegotzi eta udal langileei zuzendutako trebakuntza saioa**

Mugimendu feministak urteak daramatza instituzio publiko politikoetan begirada jarri eta bere aldarrikapenak lantzen. Betidanik izan da garrantzitsua feminismoarentzat botere guneetan aurrera eramaten den jarduera aztertzea eta proposamenak egitea eta norabide honetan, instituzio publiko politikoek zeresan berezia izan dute, botere publikoa bertan kokatzen delako nagusiki eta herritarron baliabideak bertatik kudeatzen direlako. Nahiz eta erakunde publikoak sistema patriarkalaren beste zutabe bat direla baloratu, mugimenduarentzako ezinbesteko lan esparrua izan dira, bertatik herritar guztion errealitatean eragin daitekeelako eta hortaz, aldaketa sozialak bideratu daitezkeelako.

Baina mugimendu feminista osoak ez du ez iritzi ez eta jarrera berdina izan ere. Are gehiago, instituzio publiko politikoek gainean egindako balorazioek askotan mugimendua zatitu edo aurrez aurre jarri dute. Eztabaida horretatik, hainbat feminismo tendentzia sortu dira baina bereziki praktika politiko anitz ezagutu al izan ditugu.

Nahiz eta hasiera batean mugimendu feministaren aldarrikapenak, emakumeen eskubide batzuk gauzatu al izateko bitartekoen eskara zehatzetara mugatu (urgentziazko etxeak, abortatzeko klinikak, indarkeriari aurre egiteko tresnak kasu) pixkanaka politika publiko orokor baten beharra ezinbesteko aldarrikapena bilakatu zen.

Hasiera batean, ikuspegi juridiko eta sozial bat eman zitzaion berdintasunaren beharrari. Aldarrikapen zehatzez gain, eskubide asko oraindik bermatu gabe baitzeuden. Araudietan berdintasuna eta bereziki diskriminazioa ezabatzeke

ahalegina egin zen, bai kanpo (mugimendu feministaren aldarrikapenak) zein barne mailan (instituzio barruetan zeuden feminista askoren iniziatibak) eta legedi, konstituzio eta adierazpenetan berdintasunaren aldeko apostua barne biltzeko, indarra jarri zen.

Hala ere, berdintasun formala eta errealaren arteko aldea handia zela nabarmendu zen berehala eta berdintasun legala berdintasun erreala lortzeko ez zela nahikoa agerian geratu zen. Hortik sortuko dira ekintza positiboak deitu izan zaien ekimen sorta. Tresna politiko eta juridiko honek desabantail sozialean dauden kolektiboek abantaila sozialak ematean datza, bereizkeri egoerak ekiditeko helburuarekin. Estatu Batuetan gutxiengo sozial eta etnikoek bereziki aplikatu arren, emakumeen zapalkuntzari aurre egiteko tresna gisa munduko hainbat tokietan martxan jarri zen.

Honekin nahikoa ez zela ohartuta, beste estrategia batzuk diseinatzen hasi ziren instituzioetan jardun ziren feministak. Mainstreaming edo zeharlerrotasuna deitutako estrategia berri honek, berdintasun printzipioa ikuspegi global eta orokor batetik aztertu eta garatzeko hautua egiten du eta aurrera eramaten diren politika publiko, programa eta ekintza guztietan ikuspegi feminista txertatzeko gomendioa egiten du, baita horretarako martxan jarritako egitura politikoetan ere. Nahiz eta 1987an Nazio batuen emakumeen batzorde juridiko-politikoan lehen aldiz erabili, estrategia gisa beranduago baliatu zen 1991ean eta 1995ean Beijingo IV nazioarteko emakumeen konferentzian nazioarteko onarpenera eta mugiri

menu feministako hainbat kideren onarpena lortu zuen.

la bi hamarkada pasa eta gero, berdintasun politikak eta zeharlerrotasuna hainbat eremu eta erakundeetan aplikatu direla esan dezakegu. Baina aldiz, emakumeon zapalkuntzarekin amaitu dela eta berdintasuna dagoela ezin dugu esan. Diskriminazio egoera larriak bizi dituzte emakumeek, zapalkuntza patriarkala bizi bizirik dirau eta instituzio publiko politikoetatik ez dira erantzun integral eta eraginkorrak ematen.

Horregatik ezinbesteko elementua deritzogu, aurretik egindako akatsetatik ikasi eta aldaketarako borondate politikoan oinarritutako politika publikoak martxan jartzea. Denon ardura da zapalkuntza patriarkalarekin amaitzea, baina bereziki herritarren ordezkari direnena.

Goazen beraz, elkarrekin ikasi eta bide berriak eraikitzen! Bidea ez da erraza izango!

## HELBURUAK

- Udalean politika feminista bat garatzeko oinarritzkoa den kontzientzia hartzea.
- Politika feminista garatu al izateko, oinarritzko trebakuntza jasotzea.
- Politika feminista praktiko batera begirako proposamenak lantzea.
- Udaleko egoera, kezka, oztopo eta beharren inguruko hausnarketa bultzatzea.
- Etorbizuneko erronka eta beharrak identifikatzea.

## EDUKIAK

Genero politikak eraginkortzeko asmoarekin honako gaitegia eta edukiak planteatzen ditugu. Dena dela, ez dago ez denak eman beharrik, ez bakoitzean daude gai guztiak ikutu beharrik. Bloke bakoitzarekin saio bat edo bi saio egin daitezke.

### 1. Blokea. Sistema patriarkala eta feminismoa.

- Sistema patriarkalaren ezaugarritzea. Dimentsio politiko, ekonomiko eta ideologikoa.
- Emakumeon zapalkuntza. Nola gaude emakumeak eremu ezberdinetan? Zintzuk dira diskriminazio egoera nagusiak?
- Feminismoak. Zer dira? Ideologia. Mugimendu feministak.
- Mendebaldeko eta Euskal Herriko mugimendu feministaren historia laburra.
- Emakumeon parte hartze sozio-politikoak. Nola parte hartzen dute emakumeek? Zein oztopo daude?
- Parte hartze parekide eta demokratiko baterako oinarriak.

### 2. Blokea. Genero politiken estrategiak. Zeharlerrotasuna.

- Genero politiken ibilbidea. Martxan jarritako estrategia ezberdinen azterketa.
- Zeharlerrotasuna. Zer da? Zein inplikazio ditu instituzio publiko politikoetan? Nola gauzatzen da?
- Politika feministaren oinarriak eta bitartekoak.
- Udaleko eremu ezberdinetako azterketa eta proposamenak.
- Berdintasun politikak garatzeko bitarteko eta espazioak.

- Zer dira?
- Genero aurrekontuen aplikazioaren historia laburra.
- Metodologia ezberdinak.
- Nondik hasi? Herriko prozesua zein izan daitekeen irudikatu.

#### **4. Blokea. Lengoaiaren eta irudiaren erabilera ez sexista.**

- Hizkuntza eta lengoaia. Zer da hizkuntzaren erabilera sexista?
- Lengoaia ez sexista erabiltzeko neurriak. Ariketak.
- Komunikazio eta irudi sexisten inguruko hausnarketa.
- Zeintzuk dira sexistak ez diren irudiak?
- Nola komunikatu behar dugu gure mezua?

#### **5. Blokea. Indarkeria sexistari aurre egin.**

- Indarkeria sexista, egiturazko arazoa.
- Gaur egun dauden lege, neurri eta protokoloak.
- Indarkeriari aurre egiteko estrategiak.
- Mugimendu feministarekin elkarlana.

## **METODOLOGIA**

Politika feministan trebatzeko oinarrizko ikastaro honek, metodologia parte-hartzeilea bultzatu nahi du, norbanakoen eta Udal guztiaren hausnarketa bultzatu nahi badu, ezinbestean norabide anitzetan eman behar direlako eztabaida, hausnarketa eta proposamenak. Horretarako interbentzioak egiteaz gain, talde lana lehentsiko dugu, arikera ezberdinen bidez, herriko egoera eta beharretara iristeko helburuarekin.

Arikera horien barruan, kontzientzia pizteko ariketak, bakoitzaren kezka eta resistentziak identifikatzekoak zein proposamen praktikoak egiteko ariketak erabiliko ditugu.

Ikastaroa, udal zinegotzi eta langileen beharretik abiatzea ezinbestekoa dela uste dugu, udaleko apostu garbi bat izan behar du. Eta gainera, ordu-tegi eta saioen planteamendua haien egoerara egokituta egotea ezinbestekoa da, parte hartzea indartu al izateko.

Saioak moldagarriak diren arren, 2-3 orduko saioak izatea lehenesten dugu, eta jarraian ez badira ere iraunkortasun bat mantentzea.